

## IKUSKIZUNEN KOPRODUKZIORAKO DEIALDIA

### 1. AURKEZPENA

dFERIAren oinarrizko helburuetako bat, berau definitu eta bereizten duena eta interes publikoa ematen diona, merkatua sorraraztea da, eta aurkeztutako ikuskizunak plaza berrietara zabaltzea, emanaldiak saltzea eta ahalik eta bizialdi profesional luzeena lortzea. Berebiziko garrantzia lortu duen erakusleio bilakatu da dFERIA eta, izan ere, sei aldiz handiagoa da, batez beste, urtetik urtera kontratazioetan egin den inbertsioa.

dPRODUCCIÓN proiektua, dFERIAk eta SMEDIA Fundazioak sustatua, tresna berri bat da, zeregin hori osatu, sendotu eta indarberritu egiten duena ikuskizunaren aurreprodukzioan esku hartzean, haietarako proiektuaren gaineko finantzaketa sorraraziz eszenaratu aurretik, kontuan izanik horrek oso koadratura interesgarria ixten duela dFERIAren beraren zereginetan, osagai bat gehiago txertatzen baitio, sortzaileentzako interes gehigarri bat, alegia. Hauek dira dPRODUCCIÓN proiektuaren oinarrizko helburuak:

- dFERIAren balioa indartzea, arte eszenikoen sektorea babestu eta bultzatzeko plataforma denez gero
- Ikuskizunaren produkzioari laguntza eskaintzea artistek hartzen dituzten arriskuak arintzearen
- Sektorearen iraunkortasunean laguntzea
- Prozesu lasaiagoak, babestuagoak eta asmo handiagokoak erraztea emaitza optimo bat lortzeko
- Ehun profesionala osatzen duten eragile desberdinak elkarlotzea proiektuen kudeaketa optimo baterako (sortzaileak, antzezleak, ekoizleak, banatzaileak, erakusketariak...)
- Eremu publikoaren eta pribatuaren arteko sinergiak eta elkarlaneko proiektuak sortzea

Hala, dFERIAk eta SMEDIA Fundazioak proiektu hau abiarazi dute, jarraitasuna izateko asmoarekin, eta 2018an izango da bere lehen edizioa, sektorearen egoera aztertzeke aukera emango duena 2019an bigarren edizio bati ekiteko asmoz.

Programaren helburua da koprodukzioaren inguruan interes-sare informal bat eratzea zerbitzu publiko gisa, eremu publikoak Artearen eta herritarren aurrean duen erantzukizunetik abiatuta. Era horretan, baldintza hobetan sortu ahal izateko premia du eremu pribatuak.

### 2. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen xedea da ikuskizunaren zortzi produkzio-proiektu hautatzea gehienez, sorkuntza babesteko eta sortze lana maila ekonomikoan berme gehiagorekin garatu ahal izateko, produktuaren asmoetan eta kalitatean eragin positiboa izan dezan.

### 3. DEIALDIAREN DESKRIKAPENA

- 1.-2018ko otsailaren 7an irekitzen da proiektuak aurkezteko deialdia.
- 2.-2018ko otsailaren 19an ixten da deialdia.
- 3.-Proiektuak bi orritan garatuta aurkeztu behar dira. Lehenengo orrian proiektuaren sinopsi bat, fitxa artistikoa eta teknikoa (argiteriaren, eszenografiaren... diseinatzaileak) adieraziko dira. Bigarren orria excel bat izango da, proiektuaren garapen ekonomikoa, ahalik eta xehakatuena, azalduko duena.
- 4.-Izena emateko epea behin amaitu eta gero, Balorazio Batzordeak alde zuzeneko hautaketa bat egingo du eta bertan zehaztuko da zeintzuk izango diren dPRODUCCIÓNen Mahaira (dFERIAren esparruan) bertaratuko diren proiektuak. Otsailaren 20 inguruan jakinaraziko da hautaketa prozesuaren emaitza.
- 5.-Hautatutako konpainiek konpromisoa hartzen dute Madrilen kontraste bilera bat egiteko eta Balorazio Batzordearekin irizpideak bateratzeko, martxoaren 6an, Donostian, dFERIA 2018ren esparruan goizez izango den dPRODUCCIÓNen Mahaiaren aurretik.
- 6.-Hautatutako konpainien kargura izango dira bai Madrilerai bai Donostiara egingo dituzten lekualdaketen kostuak.

### 4. ENPRESA HAUTAGAIEI ESKATZEN ZAIZKIEN BALDINTZAK

Egoitza Europar Batasunean duten konpainia guztiek parte hartu ahal izango dute deialdian, sorkuntza eszenikoari lotutako ibilbide profesional bat eginga dutenek.

## 5. DIRU HORNIDURA ETA BALIABIDEAK

dFERIAren esparruan sortutako proiektua den aldetik, Dproducción-ek gai izan behar du antzerkiak, festibalak, ekoizle publikoak eta pribatuak erakartzeko, ikuskizunen produkzioan edo koprodukzioan interesatuak, eta dPRODUCCIÓNen Mahaian parte hartuko dutenak, datorren martxoaren 6an dFERIAren esparruan izango den horretan. Hortaz, diru hornidura proiektuen parte-hartze mailaren eta piztuko duten interesaren arabera izango da. Dena den, aurreratu daiteke gutxi gorabehera 30.000 €-ko gutxienerako kopurutik abiatuko dela inbertitzeko.

## 6. ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA ETA ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

3.3. puntuan azaldu bezala aurkeztu behar da dokumentazioa. Dokumentazio idatzia eta grafikoa posta elektronikoz bidali behar da dferia@donostia.eus helbidera, gai honekin «dPRODUCCIÓN proiektua: "proiektuaren izenburua"»

Dena dela, eskaera, ondoko dokumentazioa erantsita duela bidali behar da:

- NANaren fotokopia edota EBan egoitza duela egiaztatzen duen agiriarena.
- Konpainiako ordezkariaren Curriculum Vitaea.
- Sinopsia: ikuskizunaren argumentua, gehienez 200 hitzetan laburbildua, ikuskizunaren fitxa artistikoa eta teknikoa (argiteriaren, eszenografiaren... diseinatzaileak) (orri 1)
- Garapen ekonomikoa: excell dokumentu bat, proiektuaren garapena ahalik eta modu xehakatuenean azalduko duena. (orri 1)

Kandidaturak aurkezteko epea 2018ko otsailaren 19an amaituko da.

Deialdiari buruzko informazio gehiago behar izanez gero, hau da kontaktuaren helbidea: dferia@donostia.eus

## 7. BALORAZIO BATZORDEA

Balorazio Batzordea ekimen hau sustatzen duten erakundeetako ordezkari banak osatuta egongo da, hau da, Donostia Kulturako ordezkari batek eta SMEDIA Fundazioko ordezkari batek. Batzordearen erabakia 2018ko otsailaren 20tik aurrera emango da ezagutzera, aurrena onuradun izango diren proiektuei, eta hurrena web orri hauen bidez: [www.donostiakultura.eus](http://www.donostiakultura.eus) eta [www.smedia.com](http://www.smedia.com). Batzordeak eskubidea gordetzen du deialdia osorik edo partzialki hutsik geratzen dela adierazteko, baldin eta jasotako proposamenek ez badituzte betetzen eskatzen diren gutxienerako baldintzak.

## 8. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Balorazio Batzordeak aztertuko ditu kandidaturak, deialdiaren irizpideekin bat datozen proiektuen kalitatea eta aukera artistikoa ebaluatzearen. Bereziki, ondoko alderdiak baloratuko dira:

- Eskatzailearen ibilbidea
- Talde artistikoen ibilbidea
- Proiektuaren interesa
- Proposamen artistikoaren abiaburuaren originaltasuna eta interesa
- Bideragarritasuna eta koherentzia planteamendu ekonomikoan

## 9. ALDEEN BETEBEHARRAK

Hautatutako proiektuek, eszenaratuko diren ikuskizunetan, barnean hartu behar dute dFERIA (dPRODUCCIÓN) logoa, babestuak izan badira edo babestu ez badira ere.

Proiekturen bat babesten duten ekoizleek, erakusketariak ere izanez gero, euren espazioan programatuko dute ikuskizuna.

## 10. LAGUNTZAK ORDAINTZEKO MODUA

Bi aldeen arteko akordio bilateralen arabera ordainduko dira.

## 11. DEIALDIAREN BALDINTZAK

### 11.1. Datuak Babesteko Legea

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan ezarritakoa betez, hautagaiek emandako datuak Donostiakultura erantzule den fitxategi automatizatu batean txertatu ahal izango dira komunikazioak erraztearren eta informazioa trukatzearren pertsona eta erakunde ororekin, betiere haien eskumenak eta funtzioak deialdiaren antolamenduarekin zerikusia dutenean. Datuak ez dira hirugarrenen eskutan jarriko beste xede batzuetarako.

Parte-hartzaileek edozein unetan eska dezakete Donostia Kulturak grabatutako datuei buruzko informazioa. Gainera, datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta aurkatzeko duten eskubidea erabili ahal izango dute; horretarako, gutun ziurtatua edo jaso dela egiaztatuko duen baliokidea bidali behar da, NANaren fotokopiarekin batera, helbide honetara: Konstituzio plaza 1, PK 20003, Donostia-San Sebastián, Gipuzkoa.

### 11.2. Konfidentzialtasuna

Hautatutako pertsonak isilpean gorde behar dute kontratua egitea dela-eta eskuratzen duten informazio guztia, bai eta informazioaren beraren izaera dela-eta isilpean gorde behar den informazioa ere.

### 11.3. Oinarriak onartzea

Deialdi honetan parte hartzean ulertzen da osorik onartzen direla oinarri hauek, bai eta balorazio batzordearen epaia ere. Oinarrietan jasotzen ez den edozein salbuespen aztertu eta onartu egingo du, hala badagokio, Balorazio Batzordeak.